

UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTAREN LABURPENA.

2015eko martxoaren 16ko 10:30ean, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: agentziako zuzendari Juan Andrés Legarreta jauna, Estibaliz Amorrortu andrea, Aintzane Asumendi andrea, Gemma Espigares andrea, Alfonso Hernández jauna, Jean-Michel Uhaldeborde jauna eta César Arrese-Igor jauna.

Ezin etorria adierazi dute Félix Pérez jaunak, Jörn Grunewald jaunak, Aurelie Arcocha andreak eta Eneritz Garro andreak.

Unibasqen aldetik José Manuel Valle (zuzendari laguntzailea) eta Eva Fdz. de Labastida (ebaluazio-arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda

1.- 2015eko otsailaren 6ko aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.

Onartu da akta.

2.- Zuzendariaren txostena.

3.- Beste ebaluazio eta txosten batzuetarako Batzorde bat sortzeko proposamena aztertzea, izena hautatzea eta kideak proposatzea.

4.- Ikasleen aholku-batzordea sortzeko dokumentua aztertzea, Batzordeak eskainitako iradokizunekin.

Batzordea sortzea eta izendatzea onartu da.

5.- ENQAren gomendioak eta Batzordeko kideek ekarritako iradokizunei emandako tratamendua aztertzea.

6.- Aholku Batzordeko kide bat Etika Batzordeko kide izateko hautatzea.

César Igor-Arrese hautatu da.

7. Galde-eskeak.